OÑATI
dabilen herria




# OÑATIKO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2026-2027

*600.000 euroak zureak ere badirelako*

## - PROZESUKO TXOSTENA: BOZKETAREN EMAITZAK-

*Bertsioa: 2026 martxoa*

**Oñatiko Udala**
Foruen Enparantza, 1 ▪ 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 ▪ **oñati.eus**

OÑATIKO
UDALA

## 0. SARRERA

Txosten honetan, 2026-2027 aldirako Oñatiko Udalaren Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuaren xehetasunak jaso ditugu. 2025eko ekainean hasi eta 2026ko lehen hiruhilekoan zehar amaitu da prozesua.

Ez da Oñatiko udalak gisa honetako prozesu bat aurrera eramaten duen lehen aldia, izan ere, 2018an, Oñatiko Udalak partaidetzazko aurrekontuen lehen edizioa jarri zuen abian, 2019 eta 2020 urteetako udal-aurrekontuetan herritarren proposamenak jaso, eztabaidatu eta txertatzeko eta, zenbait hobekuntza aplikatuta, 2022an ere prozesua errepikatu zuen hurrengo bi ekitaldietako aurrekontuetan aplikatzeko.

Oñatiko Udalak 2018an salto kualitatiboa eman baldin bazuen aurreko esperientziekiko, esan dezakegu 2022ko edizioak eredua egonkortu egin zuela, eta oraingo edizioa aurrekoaren ereduan oinarrituta garatu du Udalak.

Ikuspegi horri jarraiki, edizio hartatik errepikatzekoak zein hobetzekoak identifikatu ondoren, 2025ean jarri da martxan edizio berri bat: datozen bi urteetako ekitaldien (2026-2027) aurrekontuen zati bat herritarrek proposatutako ideiekin gauzatzeko 600.000 €ko kopurua agortu arte, 300.000€ ekitaldi bakoitzerako.

## 1. PROZESUAREN HELBURUAK

Prozesuaren helburuak hauek izan dira:

- 2026ko eta 2027ko ekitaldi ekonomikoetarako herritarren proposamenak zehaztea, herritarren esku 600.000 €-ko aurrekontua jarrita, urte bakoitzerako 300.000€.
- Herritarren erakunde publikoekiko konfiantza handitzea.
- Herritartasunean eta erantzunkidetasunean sakontzea.
- Udalean eta herritarrengan politika-eredu parte hartzailearen kultura sustatzea.
- Erakunde publiko eta herritarren artean elkarlan eta parte-hartze kultura indartzea.
- Partaide bakoitzaren eta denen berdintasuna eta garrantzia indartzea: edozein dela herrian duen rola, funtzioa, ardura; edozein dela duen generoa; edozein dela duen adina; edozein dela ordezkatzen duen subjektua, e.a.

## 2. IBILBIDE ORRIA

Ondoko irudian ikus daiteke prozesu osoak izan dituen faseak.




Herritarrei begira, prozesuaren epeak eta urrats nagusiak ondokoak izan dira:



## 3. EGITURA ETA KOORDINAZIOA

### Barne koordinaziorako taldea (talde eragilea)

**Osaera:** Anik Zubizarreta (udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko zinegotzia), Onintza Andres (udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikaria), Mikeldi Zeberio (Emuneko gobernantza aholkularia), Eider Gurrutxaga (Emuneko aholkularia) eta Jone Exposito (Emuneko aholkularia).

**Helburuak eta funtzioak:** prozesuaren planifikazioa, antolaketa teknikoa, jarraipen eta lan teknikoez arduratu eta prozesua gauzatzea.

### Mahai politikoa

**Osaera:** Izaro Elorza (EH Bildu), Anik Zubizarreta (EH Bildu), Iñigo Ruiz Barron (EH Bildu), Claudia Angelica Valdivieso (EAJ), Angel Maria Biain (EAJ), Onintza Andres (udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikaria), Eider Gurrutxaga eta Mikeldi Zeberio (Emuneko gobernantza aholkulariak).

**Helburuak eta funtzioak:** udalean ordezkaritza duten alderdien artean konpromiso eta adostasunak lantzea, proposamenak onartu edo baztertzeko baldintzak adostea eta aplikatzea, egitasmoari jarraipena egin eta ekarpenak eta gomendioak egitea, eta prozesuaren eta emaitzen balorazioa egitea.

### Udal teknikariekin koordinazioa eta elkarlana

**Osaera:** udaleko sailetako teknikariak, ez da berariaz langune egonkorra sortu.

**Helburuak eta funtzioak:** proiektuen bideragarritasun teknikoa egitea eta unean uneko laguntza teknikoa ematea.

### Aholkulari taldea

**Osaera:** Mikeldi Zeberio, Eider Gurrutxaga eta Jone Exposito, Emuneko aholkulariak.

**Helburuak eta funtzioak:** prozesu osoan lan teknikoak egitea udal teknikariarekin elkarlanean; bilerak, saioak eta tailerrak diseinatu eta edukiz eta materialez hornitzea; eta aholkularitza teknikoa eskaintzea.

OÑATI
dabilen herria

## BILERA ETA SAIOEN EGUTEGIA




**Oñatiko Udala**
Foruen Enparantza, 1 ▪ 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 ▪ **oñati.eus**

OÑATIKO
UDALA

## 4. 0. FASEA: ABIATZEA

Prozesua martxan jarri aurreko lehenengo urratsa izan da. Fase honetan garatu ditugu prozesuaren prestaketa lan guztiak, ekainean izan zen. Prozesuaren nondik norakoak berrikusi, egin beharreko moldaketak eta hobekuntzak txertatu eta erabaki esanguratsuak hartu dira.

Fase honen zeregin nagusiak hauek izan dira:

- Prozesuaren datak eta faseak berrikusi eta egokitu.
- Barne koordinaziorako lantaldea sortu.
- Prozesuaren jarraipenerako mahai politikoa osatu eta lehen bilera egin.
- Berme-taldea sortzeko prozedura zehaztu eta adostu.
- Proposamenek bete beharko dituzten baldintzak definitu.
- Udaleko gainerako teknikariek prozesuan zein unetan eta nola hartuko duten parte definitu.
- Komunikazio plangintza eta euskarriak sortu.

Fase honetako emaitza nagusiak hauek izan dira:

### Proposamenek bete beharreko baldintzak

Ekainaren 4ko mahai politikoaren bileran, herritarren proposamenek bete beharreko baldintzak adostu dira. Horrek esan nahi du proposamen batek, onartua izan dadin eta prozesuan aurrera egin dezan, baldintza batzuk bete behar dituela.

Aurreko edizioko baldintzak berrikusi ondoren, eta, beste herri batzuetako adibideak aztertuta, aurtengo proposamenek bete beharreko baldintzak adostu dira:

- Udalaren eskumenekoa izan behar du.
- Bi urtetan exekutatzeko modukoa izatea eta egiturazko gastu nabarmenik ez ekartzea.
- Interes orokorrekoa izatea eta onura publikoa ekartzea.
- Bideragarritasun teknikoa eta juridikoa gainditzea.
- Gastua 225.000 €koa baino handiagoa ez izatea.
- Aurretik planifikatuta ez egotea edo dagoeneko exekuzioan ez egotea.
- Partaidetza prozesu baten emaitza ez ezabatzea.
- Baztertu egingo dira orokorregiak diren proposamenak eta propositiboak ez direnak.
- Ezingo da proposatu proiektua abiatzea baldintzatuko duen enpresa, pertsona edo baliabide zehatzik.

## Komunikaziorako euskarri nagusiak

Prozesurako komunikazio euskarriak diseinatu eta sortu dira aurreko ekitaldiaren marka baliatuta.

**Irudigintza:**






**Webgunea:**




https://www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak

## 5. 1. FASEA: PROPOSAMENAK EGIN

Fase honen helburua Oñatiko herritarrek euren herria, herriko bizitza eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko proposamenak egin eta jasotzea izan da.

OÑATI
dabilen herria

## Esku-orria:



PROZESUAREN URRATSAK
FASES DEL PROCESO

**1. PROPOSAMENAK EGIN**
PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS
Irailak 8 - Irailak 28
08 Septiembre - 28 septiembre

**2. PROPOSAMENAK LEHENETSI**
PRIORIZACIÓN DE PROPUESTAS
Urriak 13 - Urriak 22
13 Octubre - 22 Octubre

**3. PROPOSAMENAK AZTERTU**
VALORACIÓN DE PROPUESTAS
Urriak 27 - Azaroak 30
27 Octubre - 30 Noviembre

**4. BOZKATU ETA ERABAKI**
VOTACIÓN Y DECISIÓN
Urtarrilak 12 - Urtarrilak 30
12 Enero - 30 Enero

OÑATI
dabilen herria
PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

2026-2027
PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK
PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS

600.000 €
Zureak ere badirelako

OÑATI
dabilen herria

ZER DIRA?

Partaidetzazko Aurrekontuak parte hartzeko prozesu bat dira, herritarrek aukera izan dezaten udal-aurrekontuaren zati bati buruz proposamenak egiteko, lehentasunak ezartzeko eta bozketa bidez zertan inbertitu erabakitzeko. 2026rako eta 2027rako, guztira, 600.000 € gorde dira. Askotariko proposamenak egin daitezke: kultura, mugikortasuna, ingurumena, berdintasuna, hirigintza, gazteria, kirola, ...

BALDINTZAK

**Proposamenek bete beharreko baldintzak:**

- Udalaren eskumenekoa izan behar du.
- Bi urtetan exekutatzeko modukoa izatea eta egiturazko gastu nabarmenik ez ekartzea.
- Interes orokorrekoa izatea eta onura publikoa ekartzea.
- Bideragarritasun teknikoa eta juridikoa gainditzea.
- Gastua 225.000 €-koa baino handiagoa ez izatea.
- Aurretik planifikatuta ez egotea edo dagoeneko exekuzioan ez egotea.
- Partaidetza prozesu baten emaitza ez ezabatzea.
- Baztertu egingo dira orokorregiak diren proposamenak eta propositiboak ez direnak.
- Ezingo da proposatu proiektua abiatzea baldintzatuko duen enpresa, pertsona edo baliabide zehatzik.

PROPOSAMENAK EGITEKO BIDEAK

Edonork egin ditzake nahi beste proposamen (ez dago adin ez beste mugarik).
Proposamen bakoitzeko fitxa bat bete behar da.

**Online:** udal webgunean (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak)
**Postontzietan:** udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan dauden kutxetan orria sartuz (Udaletxea-HAZ, Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Gizarte Zerbitzuak, Pake Leku, Eltzia, etab.)

INFORMATZEKO ETA PARTE HARTZEKO BIDEAK

**Webgunea:** udal webgunearen bidez, formularioa beteta (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak)
**Informazio puntuak:** herriko hainbat puntutan informazioa eskuratzeko mahaiak jarriko ditugu proposamenak jasotzeko epealdian.
**Aurretiazko hitzordua:** proposamenak betetzen laguntza jaso nahi duenarentzat.

Prozesuari buruzko informazio eguneratua jasotzeko lotu Telegram/Whatsapp kanalera, edo eman zure email helbidea: partaidetza@onati.eus helbidera.

**Informazio gehiago:** 943780411 (126 luz.) / 688 679 460

¿QUÉ SON?

Son un proceso participativo para que la ciudadana pueda realizar propuestas sobre una parte del presupuesto municipal, establecer prioridades y decidir, mediante votación, en qué invertir. Para 2026 y 2027 se han reservado un total de 600.000 €. Se pueden realizar diversas propuestas sobre: cultura, movilidad, medio ambiente, igualdad, urbanismo, juventud, deporte...

CONDICIONES

**Las propuestas deberán cumplir los siguientes requisitos:**

- Que sean de competencia municipal.
- Que se puedan ejecutar en dos años y no ocasionen gastos estructurales significativos.
- Que sean de interés general y de utilidad pública.
- Que superen la viabilidad técnica y jurídica
- Que conlleven un gasto máximo de 225.000 €.
- Que no estén previamente planificadas o en ejecución.
- Que no anule el resultado de un proceso participativo.
- Se desestimarán aquellas propuestas excesivamente generales y no propositivas.
- No podrán proponerse empresas, personas o recursos concretos que condicionen su puesta en marcha.

CANALES DE PRESENTAR LAS PROPUESTAS

Cada persona podrá realizar todas las propuestas que considere (no hay límite de edad ni otro requisito que cumplir).

Hay que rellenar una ficha por cada propuesta.

**Online:** vía formulario, a través de la página web (www.oñati.eus/es/presupuestos-participativos)
**Buzones:** depositando las papeletas en las urnas ubicadas en edificios públicos municipales y otros lugares habituales (Ayuntamiento, Casa de Cultura, Polideportivo, Gazteleku, Servicios Sociales, Pake Leku, etc.).

CANALES DE INFORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

**Página web:** en la página web municipal (www.oñati.eus/es/presupuestos-participativos)
**Puntos de información:** habrá mesas informativas en diferentes puntos del municipio durante el periodo de recepción de propuestas.
**Cita previa:** para quien quiera recibir ayuda en la realización de propuestas.

Para obtener información actualizada sobre el proceso contacta vía Telegram/Whatsapp o facilita tu dirección de email a partaidetza@onati.eus

**Información adicional:** 943780411 (ext. 126) / 688 679 460

PROPOSAMENAK EGIN / HAZ TUS PROPUESTAS

Oñati hobetzeko proposamenak egiteko unea da.
Nahi beste proposamen egin ditzakezu!

**Proposamenaren izena / Nombre de la propuesta**

**Zertan datza zure proposamena? / ¿En qué se basa tu propuesta?**

**Zein egoera hobetu nahi duzu? / ¿Qué situación quieres mejorar?**

**Leku zehatz bat duzu buruan? / ¿Estás pensando en un lugar en concreto?**

**Zure proposamenari buruzko zalantzarik argitu beharko bagenu, nola jarri gaitezke zurekin harremanetan? / Si necesitáramos aclarar cualquier duda sobre la propuesta, ¿cómo podemos contactar contigo?**

**Izen-abizenak / Nombre y apellidos:**
**Telefonoa / Teléfono:**
**E-maila / E-mail:**

**Lagungarri izango zaigu zuri buruz pixka bat gehiago jakitea...**
**Nos será de gran ayuda saber un poco más sobre ti...**

**Adina / Edad:**
☐ 0-15
☐ 16-29
☐ 30-49
☐ 50-64
☐ 65-84
☐ >85

**Sexu-generoa / Sexo-género:**
☐ Emakumezkoa / Mujer
☐ Gizonezkoa / Hombre
☐ Ez-bitarra / No-binario/a

## Epeak eta proposamenak egiteko bideak

Herritarrek proposamenak egiteko epea 2025eko irailaren 8tik 28ra artekoa izan da.

Proposamenak jasotzeko epealdian hainbat bide jarri dira herritarren eskura:

- Online: udal webgunearen bidez formularioa beteta.
- Postontzietan: udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan dauden kutxetan eskuorria sartuta: Udaletxea-HAZ, Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Gizarte Zerbitzuak, Pake Leku, Eltzia taberna….
- Informazio puntuak: herriko hainbat puntutan informazio eskuratzeko eta proposamenak jasotzeko mahaiak jarri dira.
- Aurretiazko hitzordua: proposamenak betetzen laguntza jaso nahi duenaretzat.

## Kale ekintzak

Kale ekintzen helburu nagusia izan da herritarrei informazioa aurrez aurre ematea eta proposamenak egitera animatzea; baina baita prozesua kalera ateratzea, herritarren egunerokora, eta presentzia irabaztea.

**Egutegia**

- Irailak 12, ostirala, 17:00-19:00, Foruen plazan
- Irailak 17, asteazkena, 11:00-13:00, San Lorentzon
- Irailak 17, asteazkena, 17:00-19:00, Kale Barrian (Etxaluze)
- Irailak 19, ostirala, 11:00-13:00, Kale Barrian (Txokolaterixia)
- Irailak 19, ostirala, 17:00-19:00, Foruen plazan

## Proposamenak datutan

**Guztira 411 proposamen** jaso dira.

| | |
|---|---|
| Webgunean formularioa beteta | 253 |
| Postontzi edo kutxetan | 146 |
| Kale-ekintzetan edo mahaietan | 12 |
| **GUZTIRA** | **411** |

Euskaraz **%77,6**

Guztira 411 proposamen jaso dira. Gehienak webgunearen bitartez jaso dira eta egin diren proposamen guztietatik ia %78 egin direla euskaraz izan da.

**Gaikako irakurketa**



Grafikoan adierazten moduan, proposamen gehienak hiri azpiegiturak eta espazio publikoaren hobekuntzen edo aldaketen ingurukoak dira, ondoren mugikortasuna, irisgarritasuna eta trafikoari buruzko proposamenak, kirola eta aisialdia eta haurtzaro eta nerabezaroarekin lotutakoak gaiak dira proposamen gehien jaso dituztenak. Ondarea eta paisaia, ongizatea, ingurumena, ekonomia eta turismoaren inguruan ere proposamen ugari egon dira.

**Adina**




Proposamenak egin dituzten herritarren adinari erreparatuz, gehiengoa 30-49 urte bitartekoak izan dira, ondoren 50-64 eta 65-84 urte bitartekoak.

**Generoa**




Proposamen gehien emakumeek egin dituzte, % 60a inguru. Gizonezkoak egindako proposamenak % 34a izan dira, generoa jarri ez dutenak % 8a eta ez bitarrenak % 1,23a.

## Baldintzak bete dituzten proposamenak

411 proposamen esku artean, mahai politikoaren bileran urriak 1 eta urriak 8an ariketa hau egin du: zein proposamenek betetzen dituzte, printzipioz, aurrez ezarritako baldintzak prozesuan aurrera egin dezaten ?

Ariketaren **emaitza** hau izan da:

| | |
|---|---|
| Onartutako proposamenak | **145** |
| Baztertutako proposamenak | **266** |
| **Guztira** | **411** |

## Proposamenak multzokatzea

Errepikatutako proposamenak izenburu bakarrean bilakatu dira eta antzekotasunak zituzten horiek, berriz, multzokatu, irakurterraztasuna eta kudeaketa errazteko.

## Proposamenak jasotzeko fasearen memoria

Proposamenak jasotzeko fasearen memoria kontsultatu hemen: https://www.xn--oati-gqa.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak/dokumentuak/part-aurrek2026-2027_proposamenen-faseko-txostena_2025-11.pdf

# 6. 2. FASEA: LEHENESTEA

Fase hau urriaren 13tik 22ra bitartean egin da. Fase honen helburua izan da aurrera egin duten 145 proposamenak herritarrek eurek lehenetsi dituzte, aurrera egingo duten multzo esanguratsu bat aukeratzeko ariketa eginda.

Aurreko edizioko irizpideak eta beste zenbait herritako adibideak aztertu ondoren, ondoko irizpideak adostu dira:

## Irizpideak zehaztea

Nola erabaki zein proposamen diren egokiagoak oñatiarrontzat? Zertan oinarrituko gara? Bada, irizpideetan.

Aurreko ekitaldian bezala, hauek izan dira ezarritako irizpideak:

| Ezarritako irizpideak | |
|---|---|
| **1. Onuradun kopurua: zenbat herritarrei eragiten dio proposamenak?** | Ekintzak herritarren artean duen inpaktu orokorra, hau da, zenbat pertsonari egingo dien mesede edo eragingo dien zuzenean edo zeharka. |
| **2. Onuradunen ezaugarriak: generoa, adina, jatorria eta antzeko faktoreak kontuan hartuta, proposamenak pertsona edo talde zaurgarriei laguntzen die?** | Ekintzak zein neurritan zuzentzen diren bereziki zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei edo taldeei (adinekoak, gazteak, emakumeak, migratuak, etab.). |
| **3. Eskaera historikoa: proposamena herritarrek edo herritar talderen batek egindako aspaldiko eskari bati erantzuten al dio** | Denboran zehar errepikatu den eta oraindik konpondu ez den herritarren eskaera bati erantzuten dion neurria da. |
| **4. Epe laburrean exekutatzeko erraztasuna: proposamena gauzatzea erraza eta bideragarria al da 2026-2027 urteetan zehar?** | Ekintza praktikan jartzeko behar diren aurretiazko ezagutza, baliabide eta denboren araberako bideragarritasuna. |

## Lehenesterako tailer irekiak

Urriaren 14 eta 22an bi tailer ireki egin dira leheneste irizpideak proposamenei aplikatzeko. Guztira **86 proposamen** aztertu ziren (baldintzak gainditutako banakako 145 proposamenak multzokatuta) eta 23 pertsonek hartu zuten parte. 1.tailerrera 15 pertsona bertaratu ziren eta 2.tailerrera 8. Aldibereko interpretazioa zerbitzua egon da.

Honela banatu dira proposamenak tailerretan:

| 1. tailerreko gaiak | 2. tailerreko gaiak |
|---|---|
| - Azpiegiturak (plaza, komunak, azoka, frontoia, iturriak...)<br>- Hiri altzariak (bankuak, argiztapena, barandilak...)<br>- Irisgarritasuna (espaloiak, zebra-bideak, oztopoak...)... | - Kirola<br>- Aisialdia<br>- Gaztaroa<br>- Zahartzaroa<br>- Kultura<br>- Mugikortasuna (aparkalekuak, errepideak kaleak, oinezko guneak, bizikleta...)<br>- Landa-eremua<br>- Berdeguneak<br>- Ingurumena |

## Proposamenak lehenesteko ariketaren metodologia

Aldez aurretik ezarritako irizpidetako bakoitzaren arabera herritarrek multzokatutako proposamenak puntuatu dituzte, honako eskala erabilita:

| Irizpidea | Balorazio eskala |
|---|---|
| Onuradun kopurua.<br><br>Zenbat herritarri eragiten dio proposamenak? | 1-3 eskalan baloratu da.<br><br>(1) Herritar gutxiri eragiten dio.<br>(2) Herritar askori eragiten dio.<br>(3) Herritar denei eragiten dio. |
| Onuradunen ezaugarriak.<br><br>Herritar zaurgarrienen beharrei erantzuten dio proposamenak? | 1-3 eskalan baloratu da.<br><br>(1) Ez ditu kontuan hartzen herritar zaurgarrien beharrak.<br>(2) Herritar zaurgarrienen beharrei zeharka erantzuten die.<br>(3) Kolektibo zaurgarrienen beharrak kontuan hartzen ditu. |
| Eskaera historikoa.<br><br>Oñatin aspaldidanik egiten den eskaera da? | 1-2 eskalan baloratu da.<br><br>(1) Ez da herrian askotan egindako eskaera.<br>(2) Herrian askotan azaleratutako eskaera islatzen du. |
| Exekutatzeko erraztasuna.<br><br>Erraza izango litzake proposamen hau exekutatzea? | 1-2 eskalan baloratu da.<br><br>(1) Ez da erraza proposamena hau egitea.<br>(2) Erraza litzake proposamen hau egitea. |

Proposamenak lehenesteko tailerretan egindako **ariketan 50 proposamenek gainditu dute leheneste fasea** eta 36 geratu dira atzean.

### Proposamenak lehenesteko fasearen memoria

Proposamenak jasotzeko fasearen memoria kontsultatu hemen: https://www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak/dokumentuak/leheneste-faseko-txostena_2025-11.pdf

## 7. 3. FASEA: BIDERAGARRITASUN TEKNIKO-EKONOMIKOA

Fase hau urriaren 27tik azaroaren 30era bitartean egin da. Udal alorretako arduradunek 50 proposamen aztertu dituzte, proposamenak egiteko fasean herritarrek helarazitako informazioan oinarrituta.

| Aztergaiak | |
|---|---|
| **Proiektuaren hasieran jarritako baldintzak** | - Udalaren eskumenekoa izan behar du.<br>- Bi urtetan exekutatzeko modukoa izatea eta egiturazko gastu nabarmenik ez ekartzea.<br>- Gastua 225.000 €koa baino handiagoa ez izatea.<br>- Aurretik planifikatuta ez egotea edo dagoeneko exekuzioan ez egotea. |

| Aztergaiak | |
|---|---|
| **Bateraezintasuntasun edo eragozpenak** | - Legerari loturi edo bestelako bateraezintasunak edo eragozpenak<br>- Proiektuaren exekuziorako zailtasunak (kokapen falta, aldez aurretiko azterlanik ez izatea, udal mailako planekin bateraezintasuna, albokalteak...) |
| **Aurrekontuaren estimazioa** | |
| **Azken ebazpena** | |
| **Proiektuaren definizioa** | Bideragarritasuna gainditu duten proposamenen definizioa. |

Baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenen deskribapen teknikoa eta aurrekontu proposamena egin dute udaleko teknikari eta zinegotziek.

Irizpide teknikoei jarraiki, proposamenetako bat banatu egin da, eta horrenbestez, 51 proposamenen fitxak osatu dira. Hauetatik guztietatik **23 proposamen** izan dira bozketa fasera pasa direnak:

| Bideragarritasun fasea gainditu duten proposamenak (bozkatzeko) |
|---|
| Plazako komun publikoak berritzea |
| Herrigunean zehar zuhaitzak landatzea |
| Plazako adokinak konpontzea, euri-uren saretek eragindako koskak ezabatzeko |
| Bankuak jartzea edota egokitzea herriko hainbat lekutan |
| Arboleda pasealekuan, ibilgailuen bidegurutzeetako oinezkoen arrapalak egokitzea |
| Zakarrontzi gehiago jartzea herriko hainbat lekutan |
| Herriko hainbat autobus geltokietan, autobusaren eta espaloiaren arteko tartea irisgarriagoa egitea |
| Hilerri barruko irisgarritasuna hobetzea |
| Atez ateko hondakinak jasotzeko guneetan zintzilikarioak babesteko panelak jartzea |
| Hilerri inguruan komun publikoa egitea |
| Bidaurretako berdegunea aisialdirako zein atsedenerako gune bihurtzea |
| Bidaurretako zuzen gunean aterpea jartzea |
| San Anton kalearen oinezko lotura hobetzea Maiatzak 1 plazarekin eta Kale-Zaharrarekin |
| Kiroldegiaren aurrealdeko jolas parkea berritzea |
| Errekalde auzoan komun publikoa jartzea |
| Hainbat bizikleta aparkaleku jartzea herrian zehar |
| Parrila gunea Ibarrako aisialdi eremuan |
| Bizikletak garbitu eta konpontzeko gunea berritzea eta bigarren bat jartzea |
| Santa Anako patineteen aparkalekua estaltzea |
| Herriguneko 6 iturri historikoak eraberritzea |
| Kurtzekuan jolas parkea egitea |
| Errekaren kontra, parrokiatik postetxerantz doan ibilbideko irisgarritasuna hobetzea |
| Kiroldegiko gimnasioko kanpo-patioa entrenamendu funtzionalerako prestatzea. |

## 8. 4. FASEA: BOZKETA

Bozketa urtarrilak 12 eta 30 artean egin da, eta botoak online zein udal eraikinetan boto kutxetan entregatu ahal izan dira. Era berean, lau egunetan kalean kokatu dira informazio eta botoa jasotzeko puntuak, herriko leku ezberdinetan.

Boto gehien jasotzen dituzten proiektuak (beti ere 600.000 €-ak agortu arte) 2026 eta 2027 urteetako udal aurrekontuetan txertatzeko konpromisoarekin, herritarrek 23 proiektuetatik gustukoenak aukeratu izan dituzte.

### Eskuorria


**Partaidetzazko aurrekontuak**

Bideragarritasun teknikoa gainditu duten proposamen guztien artean, herritarrek zein proiektu aukeratzen duten erabakitzeko fasea da.

Boto gehien jasotzen dituzten proiektuak (beti ere 600.000 €-ak agortu arte) 2026 eta 2027 urteetako udal aurrekontuetan txertatuko dira.

NORK BOZKATU DEZAKE?

- Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako* herritar orok
  ** Urtarrilak 12 baino lehen 16 bete dituztenak*
- Datu pertsonal guztiak jartzea ezinbestekoa da parte hartzeko.

NOIZ?

Urtarrilaren 12tik 30era, biak barne.

NOLA BOZKATU?

Irakurtzea errateko, hiru proiektu multzo bereizi dira, aurrekontu tamainaren arabera: handiak, ertainak, txikiak.

Proiektu guztien artean 7 gustukoenak aukeratu behar dira nahitaez (gutxiago edo gehiago markatu ezkero bozkak ez du baliorik izango).

PROIEKTUAK KONTSULTATZEKO ETA BOZKATZEKO BIDEAK

**1. Online:** udal webgunearen bidez, galdetegia beteta: (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak)

**2. Postontzietan:** etxe guztietara banatu den eskuorria bete eta udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan egongo diren postontzietan utzita (Udaletxea-HAZ, Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Gizarte Zerbitzuak, Pake Leku, Eltzia, etab.). Eskuorri gehiago eskura postontzien alboan.

**3. Informazio puntuak:** herriko hainbat puntutan informazioa eskuratzeko eta bozkatzeko mahaiak egongo dira.

**4. Aurretiazko hitzordua:** bozka-orria betetzen laguntza jaso nahi duenarentzat.

**Informazio gehiago:** 943780411 (126 luz.) / 688 679 460

PROIEKTUEN ZERRENDA
LISTADO DE PROYECTOS

**Izen-abizenak** / Nombre y apellidos: ____________

**NAN** / AIZ:
**DNI** / NIE: ____________

**Jaiotza data** / Fecha de nacimiento: ____________

*** Ezinbestekoa da datu pertsonalak betetzea bozka baliagarri izateko.**
Es imprescindible rellenar los datos personales para que el voto sea válido.

Aukeratu **7 guztira** / Elige **7 en total**
**Gutxiago edo gehiago markatu ezkero bozkak ez du baliorik izango.**
En caso contrario, se invalidará el voto.

TXIKIAK / PEQUEÑOS: 10.00 € - 50.000 €

- ☐ 1. **Zakarrontzi gehiago jartzea herriko hainbat lekutan** / Incrementar el número de papeleras en diferentes puntos del municipio. **10.000 €**
- ☐ 2. **Bankuak jartzea edota egokitzea herriko hainbat lekutan** / Instalar y/o adaptar bancos en diferentes puntos del municipio. **15.000 €**
- ☐ 3. **Bidaurretako berdegunea aisialdirako zein atsedenerako gune bihurtzea** / Convertir la zona verde de Bidaurreta en zona de ocio y descanso. **20.000 €**
- ☐ 4. **Bidaurretako zuzengunean aterpea jartzea** / Instalar un lugar de resguardo en la recta de Bidaurreta. **20.000 €**
- ☐ 5. **Kiroldegiko gimnasioko kanpo-patioa entrenamendu funtzionalerako prestatzea** / Adecuar el patio exterior del gimnasio del polideportivo para entrenamiento funcional. **25.500 €**
- ☐ 6. **Parrilla gunea Ibarrako aisialdi eremuan** / Zona de parrillas en el área recreativa de Ibarra. **40.000 €**
- ☐ 7. **Santa Anako patineteen aparkalekua estaltzea** / Cubrir el aparcamiento de patinetes de Santa Ana. **40.000 €**
- ☐ 8. **Arboleda pasealekuan, ibilgailuen bidegurutzeetako oinezkoen arrapalak egokitzea** / Adecuar las rampas peatonales en los cruces del paseo de la Arboleda. **47.000 €**
- ☐ 9. **Hainbat bizikleta aparkaleku jartzea herrian zehar** / Instalar varios aparcamientos para bicicletas en el municipio. **50.000 €**
- ☐ 10. **Bizikletak garbitu eta konpontzeko gunea berritzea eta bigarren bat jartzea** / Renovar el punto de lavado y reparación de bicicletas y crear uno nuevo. **50.000 €**

ERTAINAK / MEDIANOS: 50.000 € - 110.000 €

- ☐ 11. **San Anton kalearen oinezko lotura hobetzea Maiatzak 1 plazarekin eta Kale-Zaharrarekin** / Mejorar la conexión peatonal de la calle San Antón con la Plaza 1 de Mayo y la calle Kale Zaharra. **60.000 €**
- ☐ 12. **Kurtzekuan jolas parkea egitea** / Construir un parque de juegos en Kurtzekua. **80.000 €**
- ☐ 13. **Errekaren kontra, parrokiatik Postetxeruntz doan ibilbideko irisgarritasuna hobetzea** / Mejorar la accesibilidad del paseo junto al río, desde la parroquia hacia Correos. **80.000 €**
- ☐ 14. **Atez ateko hondakinak jasotzeko guneetan zintzilikarioak babesteko panelak jartzea** / Instalar paneles para proteger los colgadores de cubos de las áreas de recogida de residuos puerta a puerta. **100.000 €**
- ☐ 15. **Hilerri inguruan komun publikoa egitea** / Instalar un baño público en el entorno del cementerio. **100.000 €**
- ☐ 16. **Kiroldegiaren aurrealdeko jolas parkea berritzea** / Renovar el parque de juegos frente al polideportivo. **100.000 €**
- ☐ 17. **Errekalde auzoan komun publikoa jartzea** / Instalar un baño público en el barrio Errekalde. **100.000 €**
- ☐ 18. **Herriguneko iturri historikoak eraberritzea** / Rehabilitar las fuentes históricas del casco urbano. **108.000 €**

HANDIAK / GRANDES: 150.000 € - 225.000

- ☐ 19. **Plazako komun publikoak berritzea** / Renovar los baños públicos de la Plaza. **150.000 €**
- ☐ 20. **Herrigunean zehar zuhaitzak landatzea** / Plantar árboles en distintos puntos del casco urbano. **150.000 €**
- ☐ 21. **Hilerri barruko irisgarritasuna hobetzea** / Mejorar la accesibilidad interior del cementerio. **225.000 €**
- ☐ 22. **Plazako adokinak konpontzea, euri-uren saretek eragindako koskak ezabatzeko** / Reparar los adoquines de la Plaza para eliminar los desniveles causados por las rejillas de las aguas lluvia. **225.000 €**
- ☐ 23. **Herriko hainbat autobus geltokietan, autobusaren eta espaloiaren arteko tartea irisgarriagoa egitea** / Mejorar la accesibilidad entre el autobús y la acera en algunas paradas. **225.000 €**

Aurrera atera diren proposamenak 3 taldetan sailkatu dira. Proiektu txikiak(10.000€-50.000€ artekoak), ertainak(50.000€-110.000€ artekoak) eta handiak(150.000€-225.000€ artekoak).

Boto guztiek puntuazio berbera izan dute, puntu batekoa, alegia.

### Bozkatzeko baldintzak

Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako herritar orok izan du partehartzeko aukera (beti ere, urtarrilaren 12an 16 urteak beteak baldin baditu).

Bozkatzeko, datu pertsonalak (izen-abizenak, NAN/AIZ eta jaiotze-data) jartzea ezinbestekoa izan da, datuak udal erroldarekin kontrastatu eta pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatzen duela bermatzeko (online edo boto-paper bidez).

Proiektu guztien artean 7 aukeratu behar izan dira, nahitaez, bozka baliagarri izateko. Gutxiagoa edo gehiago aukeratuz gero, bozkak ez du baliorik izan.

## Epeak eta proposamenak egiteko bideak

Bozkatzeko epea, 2026ko urtarrilaren 12tik 30era (biak barne) luzatu da.

Hainbat bide jarri dira herritarren eskura:

- Online: udal webgunearen bidez formularioa beteta.
- Postontzietan: udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan dauden kutxetan eskuorria sartuta: Udaletxea-HAZ, Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Gizarte Zerbitzuak, Pake Leku, Eltzia taberna….
- Informazio puntuak: herriko hainbat puntutan informazio eskuratzeko eta proposamenak jasotzeko mahaiak jarri dira.
- Aurretiazko hitzordua: bozka orria betetzen laguntza jaso nahi duenaretzat.

## Kale ekintzak

Kale ekintzen helburu nagusia izan da herritarrei informazioa aurrez aurre ematea eta bozkatzera animatzea; baina baita prozesua kalera ateratzea, herritarren egunerokora, eta presentzia irabaztea.

### Egutegia

- Urtarrilak 16, ostirala, 17:00-19:00, Eltzian - San Lorentzon
- Urtarrilak 22, osteguna, 17:00-19:00, Kale Barrian (Etxaluze)
- Urtarrilak 28, asteazkena, 11:00-13:00, Kale Barrian (Txokolaterixia)
- Urtarrilak 28, asteazkena, 17:00-19:00, Foruen plazan

## Bozketa datutan

Guztira, **1.052 boto paper** jaso dira. Kontuan hartu behar da boto orri bakoitzean herritar bakoitzak 7 proiektu aukeratu behar zituela eta boto guztiek balio berdina izan dutela.

| | |
|---|---|
| Baliodunak | 1.011 |
| Baliogabeak | 41 |
| **GUZTIRA** | **1.052** |

Datuak egiaztatu ondoren, 41 boto baliogabetu dira, arrazoi ezberdinak direla medio: datuak ez dira zuzenak edo ez du datu pertsonalik eman, ez ditu bozkatzeko baldintzak bete edo ez dago Oñatin erroldatuta. Hori horrela, 1.011 boto paper kontatu dira baliodun bezala. Jaso diren boto guztietatik, %4 baino ez da baliogabetu, gainerakoak balekoak izan dira.




Jasotako botoen erdia online jaso da eta beste erdia eskuz:




## Boto zenbaketaren emaitzak

Honakoa izan da boto zenbaketaren emaitza:

| Zk. | PROPOSAMENAREN IZENBURUA | BOZKAK | % | AURREKONTUA (€) | AKUMULATIBOA (€) |
|---|---|---|---|---|---|
| **8** | **Arboleda pasealekuan, ibilgailuen bidegurutzeetako oinezkoen arrapalak egokitzea** | 552 | 54,599 | 47.000 | **47.000** |
| **1** | **Zakarrontzi gehiago jartzea herriko hainbat lekutan** | 472 | 46,686 | 10.000 | **57.000** |
| **3** | **Bidaurretako berdegunea aisialdirako zein atsedenerako gune bihurtzea** | 444 | 43,917 | 20.000 | **77.000** |
| **19** | **Plazako komun publikoak berritzea** | 420 | 41,543 | 150.000 | **227.000** |
| **18** | **Herriguneko iturri historikoak eraberritzea** | 418 | 41,345 | 108.000 | **335.000** |
| **22** | **Plazako adokinak konpontzea, euri-uren sareteek eragindako koskak ezabatzeko** | 400 | 39,565 | 225.000 | **560.000** |
| 20 | Herrigunean zehar zuhaitzak landatzea | 363 | 35,905 | 150.000 | 710.000 |

OÑATI
dabilen herria

| Zk. | PROPOSAMENAREN IZENBURUA | BOZKAK | % | AURREKONTUA (€) | AKUMULATIBOA (€) |
|---|---|---|---|---|---|
| 11 | San Anton kalearen oinezko lotura hobetzea Maiatzak 1 plazarekin eta Kale-Zaharrarekin | 354 | 35,015 | 60.000 | |
| 23 | Herriko hainbat autobus geltokitan, autobusaren eta espaloiaren arteko tartea irisgarriagoa egitea | 339 | 33,531 | 225.000 | |
| **4** | **Bidaurretako zuzengunean aterpea jartzea** | 324 | 32,047 | 20.000 | 580.000 |
| **2** | **Bankuak jartzea edota egokitzea herriko hainbat lekutan** | 315 | 31,157 | 15.000 | 595.000 |
| 15 | Hilerri inguruan komun publikoa egitea | 315 | 31,157 | 100.000 | |
| 14 | Atez ateko hondakinak jasotzeko guneetan zintzilikarioak babesteko panelak jartzea | 291 | 28,783 | | |
| 13 | Errekaren kontra, parrokiatik Postetxeruntz doan ibilbideko irisgarritasuna hobetzea | 279 | 27,596 | | |
| 16 | Hilerri inguruan komun publikoa egitea | 271 | 26,805 | | |
| 5 | Kiroldegiko gimnasioko kanpo-patioa entrenamendu funtzionalerako egokitzea | 260 | 25,717 | | |
| 9 | Hainbat bizikleta aparkaleku jartzea herrian zehar | 249 | 24,629 | | |
| 10 | Bizikletak garbitu eta konpontzeko gunea berritzea eta bigarren bat jartzea | 230 | 22,750 | | |
| 17 | Errekalde auzoan komun publikoa jartzea | 201 | 19,881 | | |
| 21 | Hilerri barruko irisgarritasuna hobetzea | 158 | 15,628 | | |
| 12 | Kurtzekuan jolas parkea egitea | 140 | 13,848 | | |
| 7 | Santa Anako patineteen aparkalekua estaltzea | 138 | 13,650 | | |
| 6 | Parrilla gunea Ibarrako aisialdi eremuan | 137 | 13,551 | | |

OÑATI
dabilen herria

## Bozketaren emaitza: proiektu irabazleak

Beraz, proiektu irabazleak, eta horrenbestez, 2026-2027 urteetan exekutatuko direnak, honako 8ak izan dira:

| Zk. | IZENBURUA | AURREKONTUA (€) | AKUMULATIBOA (€) |
|---|---|---|---|
| 8 | Arboleda pasealekuan, ibilgailuen bidegurutzeetako oinezkoen arrapalak egokitzea | 47.000 | 47.000 |
| 1 | Zakarrontzi gehiago jartzea herriko hainbat lekutan | 10.000 | 57.000 |
| 3 | Bidaurretako berdegunea aisialdirako zein atsedenerako gune bihurtzea | 20.000 | 77.000 |
| 19 | Plazako komun publikoak berritzea | 150.000 | 227.000 |
| 18 | Herriko iturri historikoak eraberritzea | 108.000 | 335.000 |
| 22 | Plazako adokinak konpontzea, euri-uren saretzeek eragindako koskak ezabatzeko | 225.000 | 560.000 |
| 4 | Bidaurretako zuzengunean aterpea jartzea | 20.000 | 580.000 |
| 2 | Bankuak jartzea edota egokitzea herriko hainbat lekutan | 15.000 | 595.000 |